

“Euskal Herria”

JOSEBA INTXAUSTI

Euskal Herria du obra honek izenburua, eta horixe da, bestalde, oso-osorik gaia ere. Euskal Herria bere barruti osoan hartuta esan nahi da: Hegoaldearekin batera, Iparraldea; gainerako herrialdeekin elkartuta, Nafarroa, handi eta irekia. Bi liburukitan banatzen dugu gure iraganaren eta orainaldiaren berriemate hau. Eta zinezko elebitasun batekin eraman nahi izan da lana. Lankidego zabalak hartu du parte (aski du irakurle ikusminak aurkibideari begiratu bat ematea); eta, hortxe, saiatu da bakoitza bere jakitateak modu labur eta trinkoan irakurleari eskaintzen.

Baina, egindako ahaleginen zentzua jakiteko, komeni da zein moldetako irakurlea genuen buruan jakitea ere: ez, noski, irakurle aditua, azaltzen ditugun arloetan bereziki jakituna, eta bai aitzitik, irakurle arrunt jakinzalea. Gutxi-asko, honelakoak bait gara denok: gure eguneroko jakin-barrutietatik urrundu orduko, auzokoarenean galduak, eta lehen pausoetarako hain zuzen hemen eskaini nahi dugun liburuaren antzekoetan itsumutila bilatzen dugunak. Pozik ginateke, Euskal Herriaz dihardugun honetan emandako lana lagungarri gerta balekigu.

* * *

Con una cierta inmodestia, pero, en todo caso, con una ilusión muy cierta, nos hemos permitido intitular esta obra como *Euskal Herria*, Pueblo Vasco, País Vasco. Nuestro empeño ha consistido en llenar de contenido ese título que sentimos como un reto y una exigencia, y también como una ambición: la ambición de crear un instrumento para mejor entender y pensar nuestro país, ya que no de definirlo con perfecta coherencia interna (pues los países, como los hombres al fin, no tienen ni perfecta coherencia, ni cabal definición).

Sólo los límites materiales —obligados en una obra de esta naturaleza: límites de espacio y tiempo— nos han constreñido, a pesar de la ejemplar generosidad de la Entidad promotora del proyecto y del espíritu empeñoso de los colaboradores, a no extralimitarnos temerariamente más allá de lo razonable. El lector podrá disponer del extenso material —literario y gráfico— en dos cómodos volúmenes: I. *Historia y Sociedad*, II. *Realidad y Proyecto*. Y los lectores de a pie —¿quién no lo es, fuera del ámbito de sus querencias culturales más inmediatas y próximas?— dispondremos en la obra de los “primeros auxilios” de iniciación en los diversos temas que se exponen.

HACIA UNA SINTESIS

Junto a la división especializada del trabajo, la sociedad ha necesitado también de la divi-

sión —compartida de una forma u otra— del conocimiento; en definitiva, de la especialización. El progreso moderno se ha esforzado en aislar y definir realidades crecientemente menores y diversas para aprehenderlas en su entramado más hondo. El propio avance generado por el saber científico ha venido a legitimar tal esfuerzo. Pero cualquier opción humana —y ésta que comentamos ha sido seguramente inevitable en la historia de Occidente— no carece de riesgos: nuestros saberes se han fragmentado, y se alejan entre sí, debilitando la necesaria visión global del “cosmos”, es decir, del mundo captado en su totalidad bella y unitaria. La verdadera “cosmovisión” es cada vez más ardua e inalcanzable.

Este problema se ve agudizado en el caso vasco, porque los mecanismos de transmisión cultural han carecido tradicionalmente de cauces convencionales propios, y no digamos de órganos culturales de verdad adecuados a la medida de nuestras realidades sociales. La historia escolar del país nos ha sido adversa por razones múltiples que no es el caso enumerar aquí. Para generaciones enteras de nuestro pueblo la realidad vasca ha sido presentada sin fondo, sobre un plano único y oscuro, en blanco y negro, sin perspectiva, sin color, sin matices contrastantes ni claroscuros. Como una realidad plana. Cuando, en el mejor de los casos, el especialista ha logrado adueñarse de una parcela, fragmentaria siempre, de nuestro pasado o presente, lo ha hecho a costa de un “tour de force” inestimable, pero renunciando por impracticable a un conocimiento en la globalidad (¡No podía ser investigado todo de nueva planta!). Así, por ejemplo, cualquier historiador, aun siendo de evidente competencia, ha encontrado dificultades, por demás arduas, para llegar a conocer la historia de la Literatura o del bertsolarismo, la Filosofía de nuestros pensadores, la Música de nuestros artistas, etc. Frente al saber de ese especialista; no es necesario insistir en la indigencia informativa de quienes no hemos alcanzado siquiera los umbrales de un saber tan de primera mano.

Esta obra que presentamos quiere ser, en la línea de la preocupación señalada, una síntesis de nuestros conocimientos acerca del País Vasco. Esperamos que los rasgos caracterizadores, elegidos para explicarlo, sean suficientemente amplios y significativos para ofrecernos una idea bastante acabada de lo que hemos sido y somos.

Cada aspecto expuesto es considerado desde el conjunto de toda Euskal Herria, tratando al mismo tiempo de guardar un razonable equilibrio en la atención prestada a cada territorio histórico. Mirada la selección temática desde otra vertiente, hemos renunciado a un tratamiento monográfico pormenorizado de cual-

quier capítulo. Aunque ello pudiera sonar a otra cosa, hemos querido ser modestísimamente “enciclopédicos”. Cada colaborador ha debido renunciar a pormenores ricos y razonamientos esclarecedores pero prolijos. Con esta austeridad hemos querido servir mejor a una inquietud muy actual, tal como lo muestra el reciente éxito editorial de las grandes enciclopedias en el mercado: la de entendernos como un todo comprensible.

ENTZIKLOPEDIA BAT, GEURE BURUAZ JAKITEKO

Hemen, ordea, ezagumendu-moldeen arazo hori dena kezka teorikoegia ere izan daiteke. Lerro hauetan, izan ere, autuetan Euskal Heriaz ari garenez, geurez behar ditugun jakinkizunei buruz komeniko da zerbait esatea. Belaunaldiz belaunaldi katean, jakin-barrutiz barruti gure heriaz zor zitzaigun informazio-ondarea ebatsi egin digu gizarteak; albiste-emaile bezala antolatatu ohi diren informazio-tresnek (eskolak, administrazioak, komunikabideek...) isilerazi egin izan dute geurearen ahotsa. Baina, alde askotatik, eskolamendu hori aldatzeaz dagoen egokiera historiko honetan, badirudi, Euskal Heriaz ditugun jakitateen laburbilduma erabilgarri bat inoiz baino ere premiazoagoa dela orain informazio-hedatzaile diren tokietan.

Asmo beretsuekin, eta gure artean sekula ezagutu den handikiroenik, heldu zion Auñamendi argitaletxeak bere *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* obrari. Baina lan hori, beharko lirartekeen laguntza eta ahalegin guztiekin burutzen den bitartean —urrutitik ere ez bait dugu oraingoz beste antzeko ezer, eta askoz ibili orde zehar hobekuntza daukaguna bukatu—, irakurlearen eskuetan jartzen dugun honek tarteko laguntza apalago bat eskaini liezaioke irakurleari. Eta, hurtsarte hori asez goazela, alde on bat ere (norbaitezat desabantaila datekeena) badu: euskarari toki ematen zaiola. *Enciclopèdia Catalana*-k piztu ohi digun inbiri hura ezin ase arren, pauso bat eman nahi izan dugu. Hortik gure entziklopediatxo hau, liburu kontsulta-erraza, eroso erabiltzeko, aise begiratzeko gisakoa. Halakoa izan dadin, bigarren liburukian aurkibide zabal egokia eman nahi diogu, etxerik herritarrenean ere entziklopedi betekizun hori bete dezan, neurri batetan bederen. Geure buruaz jakin beharko genukeena nornahiren eskumenean jartzea gure burujabetzari ere laguntza bait da.

LANKIDEGO ZABALA

Lankideak ugari dira liburuan, 120 bat artikulugile bi liburukietan; baina bada besterik ere: hainbat aukera eta erabakitarako aholkuemaile eskuzabalak, gertutik lagundu duten adiskideak (aditu, liburuzain eta beste), eta bigarren liburukiaren azken parteetako lan ezkutu baina balioetsua beren gain eraman dutenak, langaiak bildu eta modu erabilgarrian moldatzen ahalegindu direnak... Obra osoa bukatzean, guztiei esker ondua izango da (hala bedi!) hastean geure buruei egin genien erronka. Urtebete eta gehiagoan denon artean landu ditugun harremanak,

akuilari-egitekoa bete behar izan dugunontzat, aho-gozagarri baizik ez dira gertatu. Esperientzia on eta betegarria.

VARIEDAD DE TEMAS Y AUTORES

El panorama temático que nos habíamos propuesto atender, obviamente nos ha llevado a recabar la ayuda de un extenso elenco de colaboradores (aproximadamente 120). Nos hemos esmerado en que cada capítulo informativo fuera desarrollado por un especialista; ocasionalmente se ha preferido la colaboración de colectivos o entidades que se han hecho cargo de la redacción de conjuntos más interdisciplinares.

Aparte la valoración que corresponda a los efectivos logros literario-informativos de cada uno/a (juicio de valor que queda en manos del lector), debemos confesar que los hombres y mujeres de pluma han mostrado una receptividad generosa ante la definición de lo que se ha pretendido que fuera la obra, y han contribuido puntualmente a que el proyecto avanzara al acelerado ritmo que nos habíamos propuesto. Apenas hace falta subrayar que, por nuestra parte, estamos vivamente agradecidos por ambos gestos, que el lector sabrá apreciar, lo mismo que los inevitables sacrificios —incluso intelectuales— a los que los autores han debido someterse en aras de un proyecto cultural-divulgativo unitario.

Si bien no podíamos aspirar, por diversas razones, a alcanzar la globalidad y rigurosa sistematicidad de una enciclopedia, sí se ha intentado encaminar el proyecto hacia ese objetivo que sabíamos, previamente, inalcanzable en nuestro caso. Ciertamente, ni al término del trabajo, querríamos renunciar a la ilusión de poder ofrecer, al menos, un cuantioso acervo de informaciones, ordenado y de fácil acceso. Algo relativamente sistemático, que si no es una enciclopedia, sí aporta una información actualizada, viva y prospectiva, de intención enciclopédica.

EUSKAL/ERDALDUNAK ELKARREKIN

Liburu honen asmo ezkutuetako bat bi idazleko urrundu (batez ere, bat urrunduagoa beste baino...), elkarren ondoan jartzea izan da: erdal eta euskal luma-jendea batera biltzea alegia. Eskierki, gisa honetako liburuetan, elkarte-modu hau ez da maiz ikusten. Oraingoan batez ere ezezagunen mesedetan izango delakoan gaude.

Hizkuntza muga da eta, euskal idazle goari ezikusen ere egiten zaio erdal gizaratean; alderantzizkorik izan arren ere, euskal idazleak ofizioz eta beharrez ezagutu egin behar izaten ditu erdal kultur gizon/emakumeak. Euskaraz ari dena —geure Euskal Herriko gizarte osoari gagozkio la ere— irla urrun topaezin batean geratzen da. Izan ere, hizkuntza bat ukatzeak (eta gurea hamaika eratan ukatua izan da), hartako hitzuna eta idazleak ilunpe ez-izaki batera amiltzen ditu nahitaez.

Liburuak parada egokia eskaini digu, euskal/erdal jende elkarren edo irakurleen ezeza-

gunak, bakoitza bere ahotez mintzatzuz, bata bestearen ondoan jartzeko. Betiko galtzaileak hain urrun geldu ez daitezzen, noski. Dena den, bistan da ez dugula inor behin betirako konpainia gaiztotan uztertu nahi...

LA SELECCION

De los colaboradores hay que decir que, evidentemente, no están todos los que son. El cuadro de especialistas del País —sin que, globalmente, se haya alcanzado la amplitud y brillantez de otras latitudes no tan lejanas— rebasa afortunadamente la angostura de un libro. No están todos los que son, digo, pero es que quizá, podría pensar alguno, tampoco son todos los que están. No se extrañe por ello, excesivamente, el lector. Hemos procurado que junto a las firmas socialmente consagradas y veteranas, tuviera su espacio la generación más joven de investigadores.

La aún vacilante realidad de la UPV/EHU y otros Centros, aunque deficiente y llena de insuficiencias, está generando ya, incluso por imperativos de la pura mecánica académica y el volumen de su alumnado, un nuevo cuadro de relevo, que debía estar presente en acciones culturales como la presente. Las elecciones hechas llevaban latente una esperanza: la de que *quienes ya lo son* tuvieran tiempo para este proyecto de divulgación cultural, y la de que *quienes todavía no lo son* socialmente, lo serán en un próximo futuro.

Bien sabe este temerario director que las libertades gozadas en su cometido —y tan sólo condicionadas por su insuficiente biografía, que no, así espero, por mezquindad alguna de criterios— le obligan a no ser renuente en cargar con sus propias responsabilidades, máxime cuando no puede menos de sentirse sino honrado por esta generosa compañía. Debo, pues, explicitar mi exclusiva responsabilidad en la selección de colaboradores, aunque evidentemente, al decidir, no hayan faltado vacilaciones, cavilaciones y consultas.

No siempre ha sido posible contar con la colaboración deseada (frecuentemente, porque la naturaleza del proyecto impedía superponer en el libro trabajos de idéntico contenido sobre el mismo campo, o más circunstancialmente, porque otros compromisos hayan impedido a alguno acudir en el momento preciso). No obstante, la amplitud y buena disposición de tantas firmas honran este proyecto. Ni las divisiones ideológicas o políticas, ni el "parti pris" previo de cada uno, ni las rivalidades conaturales también al mundo intelectual han agitado esta cita de participación y trabajos. En este sentido, sin duda con una pizca de osadía, quisiéramos ver en el libro una esperanza para más cumplidas tareas colectivas de parecido signo.

ANIZTASUNAK: BATASUNA

Lankideeen aukera ez dugu, noski, itxumustuan egin. Ugari izan dira zalantzak, sarrienik nor eta non aukera gehiegi zegoelako ere bai;

inoiz baita hasiera hartan geure buruari ezarritako erizpideen artean (berehala esango da, honetaz, behar dena), arrazoizko orekaren bat gordetzearren ere. Nolanahi ere, saiatu gara "gu eta gutarrak" barrutitik irteten; irakurleak esango du zuzen ala oker. Lankidego ahalik eta zabalena bildu nahi izan dugu, informazioa ere ahalik zabalena emateko. Irakurlearen begi zolia ohartuko da horretaz lankide-zerrenda aurrean duen orduko.

Ahots-molde biziki kontrajarriak ere bildu dira, ez beste gabe horixe nahi genuelako, baina bai hori ere komenigarria ikusten genuelako, orain eta hemen, eskuartean genuen zeregin honetan. Koordenada ideologikoen kidetasuna ez da izan hemen erizpide nagusia; liburuak gehiago du inkesta baten zentzua, lankideen arteko beste hurbiltasun hura baino. Ez dugu galdu, hala ere, haragoko koherentzia baten gogoia: lankide eta idazlan guztiak errealitate erreferentzial bat bera dute: *Euskal Herria*. Horixe dago liburuaren barne-batasunik onena.

UNA DIVISORIA: LA GUERRA

Como ya se ha indicado, el libro va dividido en dos partes. Hemos elegido como línea divisoria la última contienda bélica (1936-1939), aun a sabiendas de que no en todos los aspectos tratados impone tal acontecimiento un deslinde siempre e igualmente pertinente. La "larga duración" en que se sitúan las realidades fundamentales difícilmente se deja atenazar por una periodización demasiado encorsetada.

Por debajo de la fractura bélica, en capas menos coyunturales, predomina la continuidad y la permanencia de las formas: la historia del urbanismo o la vivienda es un caso, la industrialización o terciarización de nuestra economía, la subsistencia y desarrollo de una conciencia nacionalista, el sostenido crecimiento del proceso inmigratorio, la fidelidad y recrudescimiento de la expresión religiosa de masas: son otros tantos casos de continuidad por debajo del acontecimiento bélico.

Al socaire de estas matizaciones, digamos, no obstante, que la guerra fue ciertamente un mojón divisorio para muchas actividades vitales de la comunidad: fue frontera para la economía o para la creación literaria, lo fue en el proceso institucional político y en la vida de los partidos y las organizaciones sindicales, por aludir de forma expresa a algunos ejemplos.

En fin, la guerra sigue siendo una convención permisible para una razonable periodización de nuestra historia reciente, con la evidente salvedad de que a Iparralde se le impone otro ritmo de desarrollos, aunque también allí siguiera de cerca otra guerra, la de 1940-1945.

IPARRALDEA, EZAGUTEZINA

Maisu klasikoarena hamaikagarrenez berri-tuz esateko "bi partetan partitua" doakizu, irakurle, obra hau. Erdibanatu, nolabait esateko, azken gerrate zibilak banatzen du hemen gaia: I. *Historia* eta *Gizartea*, II. *Errealitate* eta *Egitasmo*. Eman ditugu arrazoiak edo.

Baina beste banaketa kezka-garriago bat gogoratu nahi da hemen: abertzaleok beti deitoratu izan dugun geografiak, eta batez ere politikarrien geografia politikoak, azken mendeetan ezarri dugun estatuarteko mugarena. Liburu honek ere mugarri horretan egin du estropozo: Hegoa eta Iparraldea guztiz banatuta ageri dira, benebenetan, Euskal Herri osoaz informaziorik jaso nahi denean. Okerrago oraindik. Egon ere ez dago, bere osoan eta bereiz iparraldean Euskal Herririk...

Euskal Herriaz osatu nahi izan dugun berriematean Iparraldekoak gainerako gure herrialdeekin integratu nahi izan ditugu, guztien albisteak batera emanez, ahal zelarik bederen (historia, hizkuntza, kirolak, erakundeak, etab.). Baina, gure gogoak eta errealitateak horixe eskatzen zutenetan ere, maiz ez da posible gertatu. Batzutan samurragoa izan da gaia hartu eta Iparraldekoak aparte zerbait eskaintzea, bestelakorik ezinean. Bide honi heldu zaio, adibidez, gerratetik honako ekonomiaz zerbait emateko; sintesi banatu horien sintesia irakurleak egin beharko du, beraz. Baina, hori ebazpide elbarria bazen ere, okerragorik bada, eta ez —osorik bederen— lankideen beren erruz: Hegoaldeko idazlegoak oso gutxi daki Iparraldeaz, eta iparrarrak berak ez dira aski oraindik hangoaz argibideak bildu eta zabaltzeko, edo guk erredakziotik ez dugu asmatu egon badaudenak topatzen. Puntu honetan, lankideek askotan eman digute aditzera beren ezina; zoritxarrez, norberak ikasiz ere, konpondu ezin den ezina, gainera.

Alde aurretik eta “bestek” programatu dugun ezjakintasuna arautua ote den gaude, ikasiz itxuraz jakin beharko genukeena Frantzia handiaren jakindegi ilun nahasietan jaurti eta galtzen bait da, zuhurtzia politikoz betetako Administrazio boteretsuaren erabakiz. Ondorioa ezaguna da: daturik arruntena ezagutzeko ere ikerkuntza luze bati ekin behar zaio. Beraz, ezina ezinaren gain metatzen da hemen.

Dena den, eta Hegoaldeko arazoak utzirik orain, ez ditugu liburu honetako hutsuneak inoren bizkar edo egoeraren bekatuen gain airosoegi ezarriko; saiatu gara (eta, konformidadean, beste alorretan baino ere areago), irtenbide emankor bat bilatzen: inoiz edo beste lortu da behar zena, bestetan erdizka, eta nahi baino gehiagotan poto egin dugu. Hala ere, eta ez da paradoxa batere pozgarria, Iparraldeaz arruntki Hegoaldeko bibliografian ikusi ohi dena baino aberatsago gatozela uste dugu liburu honetan bildu dugun informazioarekin. Azkenik, ez dugu isilduko, Hegoaldean ere buruhausterik ez dela falta izan informazio horiek biltzean.

NAVARRA

Junto a los habituales gozos y pesares que la coordinación de una obra de estas características suele deparar, ha habido otros peculiares que han resultado aleccionadores. Para decirlo breve y oscuramente, se podría aludir a ése, digamos, *continuum* espacial de nuestros (des)conocimientos sobre Euskal Herria.

Navarra y la Comunidad Autónoma Vasca (ongad)a aparecen como dos continentes (chiquititos siempre, claro), que se alejan, no sabe-

mos si a la deriva, desde varios puntos de vista, con resultados dolorosamente comprobables. Igual que las autopistas avvicinan pueblos o los evitan, con pareja eficacia nos separa o hermana, en nuestros conocimientos mutuos, la fragmentación informativa —(intencionadamente) no homologable a veces— en la estadística o en la normativización común del euskara, sólo por aludir a dos campos suficientemente significativos.

Padecemos desde hace tiempo —y se nos acelera ahora de forma manifiesta y creciente— un proceso de “archipelaguización” del País con marchamo democrático, proceso en que las piezas del puzzle son desdentadas y deformadas para que efectivamente no encajen o encajen cada vez menos. ¡Una menudencia histórica de pasatiempo! Todo ello está afectando a nuestros conocimientos sobre Euskal Herria y, consiguientemente también a nuestra actual y futura autoconciencia de pueblo y nación.

En este contexto, detectado también penosamente en la coordinación de esta obra, nos hemos esforzado en avanzar un paso más, aunque en modo alguno creamos haber colmado el vacío existente. En todo caso, quisiera atestiguar aquí nuestra voluntad y esfuerzo deliberados al respecto.

BI LAN-MOLDE

Honainokoen ondoren komeni da, apika, liburuaren edukinari buruz zenbait oharpen egitea, gaingiroki eta xehetasun handirik gabe bada ere. Aurkezpen-moldeak berehala erakuts leza-keenez, bi gisatako artikulua eskaintzen ditugu, gehienetan pareka elkarrekin.

Alde batetik, aztergaiari buruzko azalpen orokorra, gaiaren lerro behinenak emanez, edo gaur egungo ikerkuntzaren berri xumea, bibliografia klasikoa edo gaurkoena aurkeztuz. Beti-beti pautan berberari jarraitu ez izan arren, edozein alde-tatik ere gogoeta llibur interesgarriak aurkituko ditu irakurleak sarrera-artikulu hauetan.

Bestalde, lan luzeak daude, zertzeladaz hornituak eta aberats jantziak, batez ere datu txikiaren bila joan behar denerakoak; osotasun xehatu batean “dena” bildu nahi duten artikulua dira. Bi moldetako lanok elkarren osagarri izan nahi dute.

Era bateko nahiz besteko lanetan oin-ohar bibliografiko edo bestelakorik ez dugu jaso nahi izan. Lanen eskea egitean halaxe adierazi genien autoregaiei. Salbuespen txikiren bat egin da, baina normalean baldintzatxo hori gorde ahal izan dute lankideek, horrela guztien lanek presentatera kideko bat izan zezaten. Dena airoso geratu delakoan gaude, honela. Eskerrik asko lankideei: barka ezarritako uztarpe hau, irakurlearen probetxutan.

LA BIBLIOGRAFIA

Junto con esta renuncia, la renuncia al aparato de notas queremos decir —seguramente penosa para los autores y esperamos que útil

para el lector ajetreado—, hay que subrayar también el interés que pueda ofrecer la bibliografía. Aunque no olvidamos que quien desee iniciar un estudio de mediano aliento sobre cualquier tema vasco tiene siempre una cita obligada en la *Bibliografía* de Jon Bilbao, sería nuestro deseo agrupar en un capítulo bibliográfico del segundo volumen los títulos que los autores han seleccionado para cada tema. Si este propósito —que podría verse dificultado por el imprevisto desarrollo que ha tomado el texto de los artículos— resulta factible, señalaremos en su momento oportuno las razones que nos han aconsejado esta desagregación de artículos y bibliografía.

ELEBITASUNA

Idazlanaren eta berorri dagokion bibliografiaren arteko banaketa hori eta Bidasoako mugak ezartzen digun erdibiketa aipatu ditugunez, gatzen orain liburu honek bere baitan daukan beste bikoiztasun batera: liburuan zaindu den elebitasun nabari honetara, alegia. Benetan izan nahi du elebiduna liburuak. Benetan. Eta gure elebitasun erreala gogoan hartuta, liburuak ulertu euskaldunek bakarrik ulertuko dutela —osorik— pentsa liteke...

Zoritxarrez, euskaraz ematen diren lan batzu itzulpenak dira, oro har euskal lankidegoarengandik nahi adina lan ateratzerik izan ez dugulako; baina, nolana ere, idazlan bat bera ez da bigarren hizkuntzan errepikatzen. Liburu osoko orrialde denak, elkarren jarraitasunean, berriak dira beti. Erdaldunei erdaraz eta euskaldunei "euskalaniaz" (= euskara + erdal itzulpena, inoiz; edo, = ez-jatorrizko euskara + jatorrizko ez-itzulpen erdalduna, sarrienik), da nagusitzen ari zaigun legea. Oztoparri hori saihestu egin nahi izan dugu, hizkuntza bakoitzaren baliozotasuna benetakotzat hartu, behingoz bederen elbarrienari lagunduz.

Elebitasun-gogo honetan dena ez da samurra gertatu: lehenik, euskal luma-gizon/emakumeak, nonbait, idatz-mandatu hauetarako, artikulua egiteko alegia, hartuegiak daude; batek baino gehiagok agertu digu bere ezina. Gero, eskuartearen genuen egitarauetan, elebitasun-proporzioagatik edo mezua helerazi nahi genion entzulegoak horixe behar zuelako, zenbait gai —euskaldunengandik etorrira ere— erdaraz eman behar zen.

Azkenik, hau ere esan beharko da, gaur-gaurkoz euskal idazlegoa ez da beti espezialitateko hizkera ongi menperatzera iristen. Arazo honek elkortu egiten du oraindik idazkaritzalana, inoiz edo bestetan gure hizkuntza xedea ezin lortu izateraino.

Honela, jendearen ezinak, geure aukerak eta denok jasaten ditugun eskastasunak tartean ditugula, irakurleak ikusi ahal izango du elebitasunean noraino heldu garen liburuki honetan. Kalitatearen aldetik, berriz, beti tamaina bereko euskara aurkitu ez bada ere, egiazki baliozko hizkuntza ereduak ere ez dira falta orrialde hauetan. Eta, oro har, ikerkuntza treberako edo azalpen argirako euskara ez dela inolako eragozpenik izan, ikusiko da.

HERENCIA Y NOVEDAD

Cuando aludimos a la bibliografía vienen a las mientes aspectos de nuestro saber que implican herencia y novedad. Hemos querido librar respetuosamente la tradición decantada ya en los estudios y la bibliografía que nos preceden (en verdad, poco de nuevo bajo estos cielos), y degustar también con una cierta timidez la creatividad de investigaciones nuevas. Tradición y creación de saberes. Es claro que *Euskal Herria* es deudora de muchas plumas y referencias bibliográficas. En su lugar se dirá algo de ello, aunque el carácter de esta publicación ha aconsejado una cauta moderación al respecto.

En general, las páginas que siguen, salvo alguna momentánea excepción, no han aspirado a ofrecer novedades en el sentido de que los estudiosos pudieran encontrar aquí afirmaciones inéditas que no estuvieran, dispersas, en la bibliografía conocida. No obstante, es de justicia señalar que la novedad sí está presente en la obra en varios sentidos: bien por la forma compendiosa y general en que son abordados los temas atendiendo al conjunto de *Euskal Herria*, bien porque, a parte la posible novedad de ese enfoque, a veces el propio contenido ofrecido es nuevo. Tal sucede con varias colaboraciones en euskera y alguno que otro título en español.

Sabemos que diversos trabajos de los aquí recogidos han exigido a los autores la dedicación plena de sus horas durante tiempo considerable, permitiéndonos así ofrecer a nuestros lectores un *status quaestionis* inédito o anteriormente inexistente, o bien el inicio y anticipo de una investigación futura. Aun a sabiendas de que cualquier esperanza comporta alguna veta de ingenuidad, esperamos que alguna vez en alguna parte alguno de estos capítulos más novedosos signifique, para alguien que desee avanzar, el primer desbroce en campos yermos que es preciso abordar sin demora.

LAN AURRERATUAK

Eta ikerkuntzarekin ari garenez, lan batzuren kasu berezia gogoratu nahi genuke. Gure lankide-bilaketan, inoiz edo bestetan, aurreratutak baina argitara gabe zeuden lanekin egin dugu topo. Bilatzen genuen gaia zenez, azalpen zabal bat aurrera ziezagutela eskatu diegu autoreei. Lankideon bihotz zabalari esker eskuratu dira lan horiek eta egunen batean zabalkiago agertuko direnen hasikinak hemen idoro ditzake irakurleak. Norberaren edergarritarako izango ez zaien txoko hertsiki honetatik esker bereziak ematen dizkiegu opari aurreratu hori egin diguten ikertzaileei.

ARTICULACION TEMÁTICA

Hemos querido que la obra tuviera una articulación temática en torno a aquellos quicios que hemos creído fundamentadores de un correcto análisis histórico y social de nuestro país y pueblo.

Hemos intentado sorprender esa realidad en el decurso dinámico de los siglos, luchando por igual contra la ilusión de entendernos exhaustivamente en un flash estático dogmatizante y contra la tentación de diluir una continuidad colectiva, si no definida, al menos captada por tiritos y troyanos, aunque en tales empeños de análisis aquéllos y éstos terminen naturalmente en la guerra correspondiente.

El contenido general, denso e incitante, de los dos volúmenes presenta al genuino protagonista de la Historia y de toda vida social, la colectividad —en este caso, la vasca—, a través de los siglos (*demografía*), en sus tareas libres o forzosas (*economía, trabajo*). A pesar de las dificultades con que tropezábamos en estos dos campos, hemos puesto especial empeño en allanarlas.

Avanzando un paso más, nos hemos fijado en las diversas formas de creatividad que la vida en común conlleva, bien como formulación política de la comunidad (*instituciones, configuración política del espacio*), bien como desarrollo colectivo de mentalidades (*pensamiento, creencias, ciencia*), o técnicas (*cultura material, tecnología*), así como las variadas formas de comunicación verbal, musical o plástica que la colectividad haya desarrollado (*lengua, literatura, artes plásticas, danza, música*). Todo ello en el encuadre necesario del escenario espacial, sea físico (*geología, geografía*), sea naturalhumano (*ecosistemas, geografía humana, urbanismo, vivienda*), que le correspondía.

ETA GEURE BAITANDIK ALDATUZ

Hau dena historian zehar begiratu dugu, denboraren hari bizi eta etengarrian. Gizakia, bizidun oro bezala, aldakorra da, baina nola eutsi nahi dion bereari! Joan bagoaz, noski, baina gure kontzientzian dugu euskarri "aldakaitza". Aldatuz, lehenean irauin nahi dugu. Dinamika horretan kokatu nahi izan da liburuaren edukin-isuria. Herri honen historiak ondare bat haragiegintza du guztiongan: berau fosildu nahia bezain hutsala izango litzate ez ikusi nahia.

Liburu hau, bere osoan, *bagarelako* baiezta-pen biribila da. Baina ez dugu horretan gelditu nahi izan, eta *krisialdiei* orrialde beteak eskaini dizkiegu. Hain zuzen, lehen liburuki hau gure modernotasunaren krisiaz gogoemanez bukatzen da. Bigarreanean, beste halako zerbait egingo da: gure "utopia" batzuren lastargia berriz ere piztu, orainaldian planto egin ez dezagun.

Utopiek ekar lezaketen kritikari leku eman diogu, erabat "errealista" zirenen artean, ahots kexu eta kezkatirik ere entzun genezan. Muku lu biribileko gertakari pisu eta zurrunen ondoan, ez ditugu ahaztu nahi izan udazken hilberetako uso mandatarriak —edo hegalarriak behintzat—, urrundik bait gatoz gu ere historian eta urruna joan nahi bait dugu oraindik.

Errealitateari heldu eta bertatik ezagutu eta aldarazten ari denarekin batera, geroagoko urrunari behatuz datorkiguna tartean dugu, beraz, liburuan: iraganetik gaurko errealitatera, honetatik "errealago" ere gerta daitezkeen etorkizun amesgarrietara jauzi egiteko, "pragmatikoen" baimenarekin.

A MODO DE SUGERENCIA

La obra se ha articulado en torno a ámbitos mayores de reflexión: El *espacio*, que nos arropa y condiciona, abre las páginas; la *trilogía*, de límites difíciles, de *economía-trabajo-sociedad* nos da los rasgos básicos de nuestro pasado y presente; el *tiempo*, que cuaja en nosotros como historia, se expresa en realizaciones colectivas convivenciales que aquí figurarán, por ejemplo, como historia del Derecho o de la Lengua. Todo ello en un texto denso, aunque sin pretensiones de abarcarlo todo, pues bien se sabe que un libro, por *abarcar* que sea, nunca agotará un país. Permítasenos esta constatación banal como descargo, al término de nuestra tarea de concepción y coordinación de la obra.

El lector atento podrá hallar lagunas fácilmente comprobables. Algo hemos apuntado de la desigual presencia de los territorios históricos; pero existen ausencias más penosas aún en estas páginas. Hemos tenido que renunciar, por razones diversas en cada caso, a la presentación —al menos en este primer volumen— de una historia de los levantamientos populares armados o de las guerras de los siglos XIX y XX, o a la exposición de la historia de los partidos políticos o del movimiento sindical vasco, aunque sí se ofrece una historia de las relaciones laborales; la historia del pensamiento vasco sólo llega hasta los umbrales del siglo XIX; poco se dice de la emigración vasca anterior a 1936 (peninsular, europea o americana), lo que también vale para la inmigración o las minorías marginadas del país (judíos, agotes, gitanos...).

El mundo del mar y cuanto en tierra se relaciona próximamente con él han ocupado lugar destacado en la historia del Pueblo Vasco. No obstante, las premuras finales de edición han impedido la incorporación de la colaboración solicitada: sentimientos de forma especial esta laguna que orilla la historia de nuestra industria y técnica navales, el papel de nuestros hombres de mar en el transporte, en la guerra y el corso o en la pesca, así como la incidencia directa de dichas actividades en tierra (fundación de villas, desarrollos jurídicos, acontecimientos políticos, etc.).

Por razones similares resulta un doloroso sacrificio la nula atención prestada a la historia biográfica y local. Esperemos que algún día, junto a la historia de nuestra socioeconomía, dispongamos también de las biografías de las grandes personalidades vascas que han actuado dentro y fuera del País, biografías e historias locales que aplicaran en cada caso las metodologías modernas deseables.

Queremos dejar también constancia de otra laguna: la de los hombres de pluma que figuran en la historia de las literaturas erdéricas. Algo se dice de ellos, pero el trabajo queda pendiente. En las antípodas de las hipotéticas "vidas ejemplares", debemos anotar un hueco más punzante aún, el del hombre y la mujer comunes, nosotros: la historia de las formas de vida cotidianas del pueblo llano está por hacerse, y consiguientemente, no figura aquí.

Este rosario de deficiencias y limitaciones

podría prolongarse, pero valga lo ya subrayado para consignar aquí nuestro convencimiento al respecto. Y valga también como expresión de nuestro deseo de que nuevos esfuerzos próximos completen y mejoren el presente.

LIBURUA, NORENTZAKO?

Aurreko lerroetan eman ditugun berrien ondoren, samurra da liburua norentzat egiten den aditzera ematea. Samurregia edo zailegia. Segun. Nornahirentzat izateko moduan pentsatu eta egin nahi izan da berau, beraz ez du norentzako berezirik. Egindako lanak irakurle arruntaren zuri hori asmatu duela esango genuke, gainera, apurtxo bat lotsagabeki bada ere. Bestalde, uste dugunez, suerta liteke probetxu bereziki hoberik aterako dionik ere.

Testu trinko eta naharo horretan milaka eta milaka datu metatu dira. Ordenamendu txukun bat ematen ere saiatu gara irakurgai luze honetan; areago ere joan zitekeen, idazlan eta pasarteen arteko edukin-loturak landuz, baina asmoa aurkibideetarako utzi dugu, oraingoz (bigarren liburukian eman litekeen aurkibide analitikoan batipat). Zernahi jakiteko ez bada ere (mugak ere aipatu ditugu), jakinkizun ugari bilzteko erosotasunik ez zaio faltako irakurleari.

Baina argitalpen honen balio sozial praktikoa ez da agortzen —hauxe da ezkutuan gure irrika— noizbehinka hutsuneren bat betetzeko orrialde hauetara hurbil litekeen irakurle kezkatuarekin. Efektu biderkatzaile emankorragorik ere izan dezaketen lantokiak ditugu buruan: eskolak, komunikabideak, nola edo hala Euskal Herriaz hitzegin behar duten (edo beharko luke ten) guztiak... Denek jo dezakete orrialde hauetara. Maizenik, eta beti ere esku-eskumenean izango dute bertan erantzunik, Euskal Herriaz argibideak jaso eta mintzatu ahal izateko.

Irakasleak milaka ditugu Euskal Herrian ere; arrazoi pedagogiko, historiko eta akademikoen gatik, gure Historiaz eta errealitateaz, geroz eta sarriago hitzegin beharra dute beren lantokietan. Egiteko horretan piska bat laguntzeko moldatu dugu liburua.

Hain zuzen, irakasle onak azken orduko prestatzizunak edo kazetarien presa urduri eta itoak gogoan hartu ditugu idazlanok bildu eta aurkeztean: autoreekin batera, edo haien baimenarekin, saiatu gara, artikulu guztietan, titulu eta azpitituluak argi emanik, gai-azalpen bakoitzaren ideia-egitura begien bistan jartzen. Premiazkoa zela uste izan dugu, hori horrelaxe eskaintzea. Are gehiago, irakasleak ezezik, ikasleak ere aintzakotzat hartzen genituelako. Oinarrizko Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide-Heziketan edo U.B.I.n, Euskal Herriaz modu eroso eta laburbildu batean zernahi topatzeko erraztasunik ez dauka gaur ikasleak. Eskastasun honi buru egiteko behin-behineko interbideren bat bilatuz moldatu da argitalpena. Besterik ezean, alegia.

Komunikabideak eta kazetariak aipatu ditugu. Barruti honetan ere liburuak zerbitzu egoiak eman ditzakeelakoan gaude: Euskal Telebistan, Irratietan, Egunkarietan... Garrantzizkoa ikusten dugu komunika-tresna horietarako ere orrialde hauetako euskal edukinak modu era-

bilgarri honetan irakurleari eskuratzea. Profesional hauei ere premiazkoa zaie, noski, gisa honetako zerbait, beste edozein idazleri bezalatsu. Poztuko ginatete (eta ez gutxi), hartutako erabakietan asmatu bagenu.

Liburu honek, batez ere, kultur ekintzaileen tresna izan nahi du, liburu-apalen bateko apaingarri baino areago.

TEXTO E ILUSTRACIONES

Euskal Herria es obra en la que el texto literario prevalece, en su concepción y efectiva elaboración, sobre la parte gráfica de mapas, dibujos y fotografías. Por ello hemos sacrificado el preciosismo fotográfico o la búsqueda intencionada de la imagen espectacular, en aras de una mayor dedicación de fuerzas y medios al desarrollo del texto.

No obstante esta opción, que en la perspectiva en que hemos operado consideramos sustancialmente válida, hay que consignar los criterios con que se ha confeccionado la parte de ilustraciones. Hemos atendido en principio a las sugerencias de los autores, tratando de compatibilizar las mismas y evitando reiterarnos en las reproducciones y creaciones gráficas. Deseábamos que el autor propusiera su propio subrayado gráfico en función de la información que deseara destacar junto al texto literario. En algunos casos ha sido la Redacción la que, por razones meramente de gestión editorial, ha establecido el guión gráfico, al mismo tiempo que los correspondientes pies de gráfico, o ha debido alterar la propuesta gráfica original del autor, contando en tal caso con la aquiescencia del mismo siempre que se ha podido.

Se hace necesario aquí dejar constancia del criterio básico que ha guiado la selección y reproducción de las ilustraciones. Como hemos indicado ya, en todo ello ha primado el valor didáctico o histórico sobre la valoración de su calidad estética, aunque no se hayan desdeñado esfuerzos por dar soluciones de calidad, en la medida en que ello era posible.

* * *

En una obra tan colectiva como ésta, se hace difícil el capítulo pormenorizado de agradecimientos; sin embargo, es preciso explicitar nuestra gratitud, al menos de forma general, a cuantos de un modo u otro han posibilitado el proyecto en la doble vertiente de su redacción y publicación. Con ello no pretendemos colmar con breves palabras las deudas de todo género que hemos contraído a lo largo de esta andadura, breve pero intensa. Nuestras gracias a todos los colaboradores cuya relación figura al frente del volumen y cuya disponibilidad ha sido inapreciable, lo mismo que a cuantos son citados al frente de cada sección del segundo volumen.

A pesar de la parquedad que supone esta generalización —obligada, por una mínima cautela que nos salve de omisiones impropias—, es de justicia reiterar aquí, entrañable y particularmente, unos pocos nombres.

En primer lugar hay que recordar una presencia institucional, que no por muy declarada se puede omitir en este pórtico de la obra. Me refiero a la de Caja Laboral Popular/Lan Kide Aurrezkia que ha situado, en este caso, sus compromisos muy por encima de cualquier mecenazgo convencional, en primer lugar haciendo suyo un proyecto quizá excesivamente desnudo de atavíos publicitarios, y luego aportando los fondos necesarios para financiar su realización, al tiempo que participaba directamente, desde su Departamento de Relaciones Públicas y Publicidad, en la gestión y elaboración de la parte gráfica. Es de justicia aquí una mención expresa: sin la colaboración del Sr. Enrique

Foronda (jefe de relaciones culturales del Departamento), esta obra hubiera sido de todo punto imposible en su forma actual. Sus jornadas maratonianas y su cabal eficiencia han sido agotadoras e insuperable. Una cooperación tenaz y militante, del mejor cuño. Eskerrik asko denoi.

Eta eskerrik asko Mila Larrea andereñoari ere. Ongi dakigu, jakin ere, beronen xehetasun-minari eta langoseari esker datorrela gaur kalera liburua, honela: ordenatua, txukuna. Hainbeste itolarri eta buruhausteren artean berau gertatu da beti gure idazkaritzako lankideen "itsuneska" fina. Eta bukatuz: Eskerrak Joxe Azurmendi-ri, hemen ere kritikari argi, aholkumaille leial, une on eta zailtan beti lagunari.